



KLORATTA - DROGAK

**Herri libre baten alde egin
baina "esklabu" bezala bizi
jendartea aldatu nahian azaldu
eta gero zure burua galdu**

**heroina herri batekin bukatzearen
ahalegina gero etorri zitzaigun guri hona
kokaina horrek bai egiten diola herriari
mina, mina, mina...**

**jakina, menpekotasuna uztearen ezina
sudurretik hainbeste kaka sartuta daukazu
burua galduta,
eta ahaztuta
drogak hona ekartzean nor zegoen atzean
eta zeinen mesedetan zu ere erori zarela sarean**

**apalankatuta ez da borrokatzen
sudurretik ez da pentsatzen**

**marioneta egun osoa telebista ikusten
egotea kalera irten zigarroa erre
eta kafea hori ez da askatasunean bizitzea
zer da? zer da? zer da?**

**jendarte obediente eta sumisoa
jarraitu kontsolan jolasten egunero eta egiezu kasu
babo, ez al duzu ba ikusten balore guzti honekin
nora eramaten gaituzten?**

**Menpekotasunak ez du aske egiten
Sistemaren esklabua zara!**